

gertu

kultura
inklusiorako
atea



JARDUEREN
MEMORIA

2025

Gertu Kultura

www.gertukultura.org

bizkaia@gertukultura.org

Memoria honen itxiera-data:
2025eko urtarrilaren 25a

Babesleak:



Laguntzaileak:



JARDUEREN MEMORIA 2025

| EDUKIAK

1. AURKEZPENA | 1. orria

- Zer da Gertu Kultura?
- Xedea eta balioak
- Ezaugarri nagusiak
- Nori dago zuzenduta?
- Programaren hedapena eta kudeaketa
- Gertu Kultura taldea

2. GERTU KULTURA SAREA | 7. orria

- Programatzaile kulturalak
- Gizarte-arloko erakundeak, zentroak eta zerbitzuak

3. JARDUERAK 2025 | 13. orria

- Esperientziak kulturalak
- Formakuntzak eta topaketak
- Gertu Kultura Bizkaiaren inaugurazioa
- Programa espezifikoak eta partaidetzazkoak

4. KOLABORAZIOAK | 28. orria

5. LAN-SAREAK | 28. orria

6. FOROETAKO PARTE-HARTZEA | 29. orria

7. KOMUNIKAZIOA ETA PRENTSA | 30. orria

- Edukiak
- Buletinak
- Sare Sozialak
- Hedabideak
- Webguneko bisitak

1. AURKEZPENA

Zer da Gertu Kultura?

Gertu Kultura programa soziokultural bat da, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen programazio kulturala irigarri egiten diona gizarte-erakundeen eskutik.

Gertu Kultura egunero ari da eboluzionatzen eta eraldatzen, pertsonak, gizartearen eta kulturaren arloko erakundeak, eta eragile publiko eta pribatuak biltzen dituen sare organiko baten bidez. Denok egiten dugu aurrera helburu komun baterantz, hots: kulturaren bidez gizarte bidezkoagoak, jasangarriagoak eta berdinzaleagoak eraikitzea.

www.gertukultura.org plataformaren bidez, gizarte-erakundeak Bizkaiko antzoki, auditorio, museo, gune berezi eta jaialdiekin konektatzen ditugu.

2025ean, lan-ildoek aniztasunak ikusaraztea izan dute ardatz **#Filtrorik gabe: Aniztasuna ospatzen** kanpainaren bidez, eraldaketa sozialerako tresna gisa irisgarritasuna eta bitartekaritza indartuta. Lanean jarraitu da **hautatu gabeko bakardadeari aurre egiteko** kulturak betetzen duen zereginaren inguruan.

Gertu Kultura sare zabalago baten parte da. Sare hori duela 18 urte hasi zen Katalunian, Apropa Cultura izenarekin. Erreferentziazko jardunbide egokien programa bat da, ezagutzak modu deszentralizatuan ematen eta transferitzen dituen. Ezagutza hori eta gure esperientzia eta ibilbidea batuta, Gertu Kulturak 2025eko maiatzean hasi zuen bere ibilbidea Bizkaian, gure lurraldearen berezitasunetatik, beharretatik eta testuingurutik abiatuta. Urtean zehar, etengabe eraldatzen eta hazten ari den sare kultural bat eratu da, kultura gizartearen eraldaketaren eragile gisa kokatzen duena.

Xedea eta balioak

Kulturarako sarbidea eskubide bat da, pertsona duintzen du eta hura erabat gizarteratzea normalizatzen du. Gertu Kultura sortu da kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bitzita kulturaren bidez hobetzeko borondatearekin.

Asmoa

- Gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa nahi dugu, herritarren onurarako.
- Hori lortzeko erabiltzen dugu kultura, gizartea eraldatzeko eta pertsonen bitzta hobetzeko duen ahalmenagatik.

Sinesmenak

- Kultura eskubide unibertsala da, eta beharrezkoa da kulturarako salbuespenik gabeko sarbidea bermatzea.
- Kultura inklusiboa eta partaidetzazkoa eraldaketa sozial eta indibidualaren eragilea da.
- Aniztasunak denoi laguntzen digu hazten.

Balioak

- Sormena eta berrikuntza metodologian.
- Ekitatea eta justizia soziala politiketan.
- Maitasuna eta konpromisoa harremanetan.
- Bokazio eraldatzailea kulturatik abiatuta.

Gertu Kultura Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin



Ezaugarri nagusiak

Gertu Kulturaren, pertsona guztien irisgarritasun eta parte-hartze kulturalerako eskubidea bermatzeko lan egiten dugu. Horretarako, dauden oztopoak detektatzen ditugu eta oztopoak ezabatzen laguntzen duten lan-ildoak, ekintzak eta programak inplementatzen ditugu. Horretarako, programan parte hartzen duten programatzaile kulturelek hainbat konpromiso hartzen dituzte beren jarduerak irisgarriago egiteko.

Eta, nola egiten dugu?

- **Programazio kulturaletik.** Antzoki, jaialdi eta auditorioetako ohiko programazioko ikuskizunak. Museoetako eta espazio berezietako bilduma eta erakusketen inguruko bisitak eta lantegiak. Jarduera horiek talde bakoitzaren beharretara egokitzen dira.
- Programazio osoaren eskaintzak **0 eta 3 € arteko prezioa du pertsonako.**
- **Irteerak arrakastatsuak izan daitezen zaintzen dugu.** Pertsona guztien beharrak kontuan hartzen ditugu, eta gizartearen eta kulturaren arloko erakundeei aholkularitza eta laguntza ematen diegu.
- **Tokian-tokian** lan egiten dugu, **kulturaren eta gizartearen sektoreen artean zubi egonkorrak** ezarrita. Urtean zehar programazio kulturalaren aurkezpenak antolatzen ditugu eskualde bakoitzeko zentro sozialetan.
- **Formakuntza artistikoak (Artez Hezi)** antolatzen ditugu gizarte- eta hezkuntza-ekintzako profesionalentzat.
- **Irisgarritasunari eta inklusioari buruzko formakuntzak (Errazbide)** diseinatu eta antolatzen ditugu, ekipamendu kulturaletako langileei zuzenduta, kolektibo sozialei ahalik eta zerbitzurik onena eskaini ahal izateko.
- **Proiektu kultural eta artistiko espezifikoak** diseinatu eta antolatzen ditugu. Horietan gizarte-erakundeek eta ekipamendu kulturelek parte hartzen dute, kultura pertsona guztiei helarazteko, baita beren inguruabarrengatik zentro sozialetatik atera ezin direnei ere.
- Eragile sozial eta kulturalen, adin desberdinetako pertsonen, ikastetxeen eta zentro sozialen erabiltzaileen arteko **topaketa- eta elkarrizketa-guneak (Elkarguneak)** sortzen ditugu, behar eta erronka kolektiboek erantzuteko.
- **Irisgarritasun eta bitartekaritza kulturalari buruzko aholkularitza** profesionalentzat eta ekipamendu kulturaletarako.
- **Gomendioak** eta aholkularitza gizarte-erakundeei, kultura koka dezaten eraldaketa sozialeko tresna normalizatu gisa beren eguneroko jardueraren

esparruan.

- **Ebaluazioa.** Kulturaren eragin soziala baloratzeko metodologia eta tresnak.

Nori zuzenduta dago?

Gizarte-arloko erakundeei eta zentroei, honako hauekin lanean dihardutenei:

Desgaitasun intelektuala duten pertsonak, osasun mentaleko arazoak dituztenak, garuneko paralisia eta/edo antzeko ezintasunak dituztenak, desgaitasun fisikoak izanik gizarte-bazterketako egoeran daudenak, adineko pertsonak (egoitzak, eguneko zentroak), askatasunaz gabetuta daudenak, pertsona migratuak eta errefuxiatuak (harrerako eta gizarteratzeko programak), haurrak eta nerabeak (CRAE zentroak eta zentro irekiak), adikzioak dituztenak, etxerik gabeak, emakumeak (genero-indarkeria eta bazterketa-arriskua), autismoaren espektroko nahasmendua dutenak, kalteberatasun-egoeran dauden LGTBI kolektibokoak.

Gainera, zerbitzua ematen diegu zentro okupazional bereziei, gaixotasun kronikoetako elkarteei, sindrome edo gaixotasunekin lotutako familien elkarteei, eta adinekoei zerbitzua ematen dieten etxebizitzetara.

Programaren hedapena eta kudeaketa

- Urtean zehar **udalen eta ekipamendu kultural berrien programazio kulturala** sarean sartzeari dugu helburu. Sareari atxikitze prozesuan, harreman iraunkorak ezartzen ditugu zuzendaritzarekin, gerentziarekin, zinegotzigoarekin edo alkatetzarekin. Ekipamendu kulturaletako langileei zuzendutako formakuntza espezifikoa egiten ditugu, ahalik eta zerbitzu onena emateko. Etengabe **laguntzen** dugu espazioetako bakoitzean programa sustatu eta garatzeko.
- 2025eko maiatzetik **Bizkaiko 24 udalerritako 95 zentro sozialen** datu-basea kudeatzen dugu, eta lurraldeko udalerririk guztietara iristeko lanean jarraitzen dugu. Federazio, elkarte, entitate eta aldundiekin lan egiten dugu Gertu Kultura ezagutarazteko.

- **Udaletako kultura-arloarekin eta gizarte-ongizateko arloarekin** lan egiten dugu gizarte-zerbitzuak eta zentroak beren ingurune hurbileneko eskaintza kulturalarekin lotzeko, **dauden sinergiak sustatzeko eta lankidetzaren modu berriak irekitzeko.**
- **Urteko komunikazio-kanpaina** bat diseinatu eta ekoizten dugu ekipamendu kulturalarekin eta gizarte-erakundeekin lankidetzan, programa ezagutarazteko eta kulturarako sarbidea eskubide unibertsal gisa aldarrikatzeko.
- **www.gertukultura.org webgunea kudeatzen dugu.** Horren bidez, sarreren salmenta dinamizatzen dugu eta ikuskizun eta museoetarako sarreren erreserba guztiak bideratzen ditugu. Plataforma garatzen eta hobetzen duen enpresa informatikoarekin eta edukien talde administratzailearekin batera egindako lanaren emaitza da webgunea, eta helburu du erabiltzaileen beharretara egokitzea, esparru kulturalakoak nahiz sozialekoak izan. Hori dela eta, **Gertu Kulturak urtean zehar inplementazio informatiko berriak proposatzen ditu.**
- Ekipamendu kulturalak **beren ohiko programazioaren % 2 gutxienez** kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak eskain diezaizuten zaintzen dugu. **Ekipamendu kultural guztiei euskarri-zerbitzua** eskaintzen diegu kudeaketaren arloan, baita informatikari eta edukiei dagokienez ere.
- **Ekipamendu kulturalak aholkatzen ditugu beren jarduerak** kolektibo bakoitzaren beharretara **egokitzeko.**

Gertu Kultura taldea

Kudeaketa eta bitartekaritza soziokulturalean ibilbide luzea egin duen profesional talde bat gara. Kulturaren bidez gizarteratzearekin eta irisgarritasun unibertsalarekin lotutako proiektuen diseinuan eta garapenean espezializatuak. Prozesuak eta loturak zaintzetik abiatuta lan egiten dugu, egiten dugun guztiaren erdigunean pertsonak kokatuta.

Zuzendaritza:

Marta Font

Bitartekaritza eta kudeaketa:

Mirari Garcia

Komunikazioa:

Ane Rotaeché

Gertu Kultura taldea ekipamendu kulturaletan:

Gertu Kultura ekipamendu kulturalen eta gizarte-erakundeetako profesionalen arteko elkarlanaren emaitza da. Ekipamendu edo programatzaile kultural bakoitzak arduradun bat du, **Gertu Kulturako koordinatzailea**, Gertu Kultura taldeen programazioa, sarrerak, ordainketak eta arreta kudeatzeaz arduratzen dena.

Gertu Kultura Bizkaiak honako hauen babesia du:

Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.

Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila.

Babeslea:

BBK Banku Fundazioa

Laguntzaileak:

Eusko Jaurjaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila.

2. GERTU KULTURA SAREA

2025eko maiatzetik abenduaren 31ra arte, Gertu Kultura sareari honako hauek atxiki zaizkio:

Programatzaile kulturalak

Guztira **26 programatzaile kulturalak**:

- Arkeologia Museoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Arrantzaleen Museoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- BAD Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen jaialdia (sustatzailea: Bilbao Udala)
- Barakaldo Antzokia
- BBK Live jaialdia
- BBK babesletzak
- Bilbao Izan (sustatzailea: Bilbao Udala)
- Bilbao Orkestra Sinfonikoa
- Bilboko Kalealdia (sustatzailea: Bilbao Udala)
- Durangoko Arte eta Historia Museoa (sustatzailea: Astarloa Kulturgintza)
- EGO Fundazioa
- El Pobal Burdinola / Muñatones Gaztelua (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Euskal Herria Museoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Euskalduna Bilbao
- Euskadiko Orkestra
- Euskararen Etxea (sustatzailea: Azkue Fundazioa)
- Gernikako Bakearen Museoa
- Itsasmuseum (sustatzailea: Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa)
- La Encartada Fabrika-Museoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Ondare Aretoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Orduña Hiria Museoa (sustatzailea: Hamaika Kale Boluntarioen Elkarte)
- Rekalde Aretoa (sustatzailea: Bizkaikoa)
- BBK aretoa
- Arriaga Antzokia
- Txakolin Museoa-Txakolingunea (sustatzailea: Bizkaikoa)
- Utopian Getxo



Gertu Kultura Bizkaia sare kulturala.

Gizarte-arloko erakundeak, zentroak eta zerbitzuak

Guztira **gizarte-arloko 95 erakunde, zentro, programa eta zerbitzu.**

- AIDAE - Desgaitasuna duten pertsonak integrazteko elkarteak - Amorebieta-Etxano
- AmiArte
- APDISA - Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak - Santurtzi
- Apnabi Autismoa Bizkaia
 - Apnabi Autismoa Bizkaia
 - Apnabi Ubieta 1
 - Fruiz etxebizitza
- Argia Fundazioa
 - Eguneko ospitalea
 - Lantzarte egoitza
 - Zubiete egoitza
 - Zurimendi egoitza
- ASPARBI - Parkinson elkarteak Bizkaia
- ASPACE Bizkaia
 - ASPACE Bizkaia Santurtzi
 - HBIP San Ignazio
- Aspaldiko

- Eguneko zentroa
- Aspaldiko Fundazioa
- Aspaldiko egoitza - zerbitzu psikosoziala
- Askabide
 - Harrera-zentroa
 - Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimei arreta integrala emateko programa
 - Eguneko arreta-zerbitzua
- AVIFES
- Bidegintza
- BizkaiaGara
- Cáritas Bizkaia
 - Enplegua eta Ekonomia Solidarioa arloa
 - Adinekoak eta Zahartzea arloa
 - Ekin zentroa
 - Bihotzdun Enpresak, Diapason
 - Etxepel
 - Namasté
 - Sustapen arloa
- Eguneko zentroa Basurto
- Clara Campoamor - Utopia proiektua
- Colisée Bilbao
- Gurutze Gorria Bizkaia
 - Gurutze Gorria Durangaldea
 - Pausoka
- EAPN Euskadi
- EDE Fundazioa
- Elkarbanatuz
 - Baikaba
 - Hiranka 1
- Emargi - Emakume eta nesken emantzipaziorako elkarte
- Erain Osasun Mentala
- Eragintza Fundazioa
- Eusko Jaurlaritza
 - Antonio Trueba IPI
 - Durango BHI
 - Artaza-Romo BHI
 - Kuetto Eskola
- FEKOOR – Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko

Federazio Koordinatzailea

- FEVAS Plena Inclusión Euskadi
- Formarte Bilbao
- ADSIS Fundazioa
- Integrando Fundazioa
- Euskal Herriko Down Sindrome eta beste adimen urritasunen Fundazioa
- Fundación Vizcaína de Caridad - Conde de Aresti egoitza
- Futubide Fundazioa
- Gaude
- Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkartea
- Gazteleku Elkartea
- Gizakia Fundazioa
- Gorabide
 - Atxarte egoitza
 - Aisia eta partaidetza soziala
 - Partaidetza asoziatiboa
 - Arangoiti egoitza
 - Artzentaleak egoitza
 - Eguzkia eta Haizea egoitzak
 - Gueñes etxebizitza
- Grupo SSI - Begira Aktiboa
- Izarra etxea
- IFAS
- IMQ Igurco
- IRSE-EBI
 - Indartuz harrera-zentroa
 - Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua - Arrigorriaga
 - EISECO Otxarkoaga-Txurdinaga
 - EISECO Zorroza
- Izangai Elkartea
- Lagun Artean harrera-zentroa - Kide programa
- Lantegi Batuak
 - Zerbitzu okupazionala
 - Zerbitzu okupazionala - Getxo
- Nagusiak Bizkaia
- Norai - Etorkizuna Musikatan
- Osakidetza
 - Eguneko ospitalea - Areeta

- Eguneko ospitalea - Ermua
- Eguneko ospitalea - Barakaldo
- Eguneko ospitalea - Durango
- Eguneko ospitalea - Basauri
- Eguneko ospitalea - Gernika-Lumo
- Eguneko ospitalea - Uribe
- Eguneko ospitalea - Erandio
- Eguneko ospitalea - Txurdinaga
- Pertsonalde Elkartea
- Randstad - Randstad Euskadi
- San Nikolas Zabalik
- Sortarazi - Uribenea
- UN Etxea
- Zubiko
- Zubietxe



Gertu Kultura Bizkaia sare soziala.

Erregistratutako gizarte-zerbitzuen jatorria:

Abadiño	1	Dima	0	Ortuella	0	Karrantza	0
Abanto Zierbena	0	Durango	4	Otxandio	0	Kortezubi	0
Ajangiz	0	Ea	0	Plentzia	0	Lanestosa	0
Alonsotegi	0	Elantxobe	0	Portugaleta	4	Larrabetzu	0
Amorebieta-Etxano	1	Elorrio	0	Santurtzi	2	Leioa	3
Amoroto	0	Erandio	2	Sestao	1	Lekeitio	0
Arakaldo	0	Ereñio	0	Sondika	0	Lemoa	0
Arantzazu	0	Ermua	1	Sopela	0	Lemoiz	0
Areatza	0	Errigoiti	0	Sopuerta	1	Lezama	0
Arrankudiaga-Zollo	0	Etxebarri	0	Sukarrieta	0	Loiu	1
Arratzu	0	Etxebarria	0	Trapagaran	0	Mallabia	0
Arrigorriaga	2	Forua	0	Turtzioz	0	Mañaria	0
Artea	0	Fruiz	1	Ubide	0	Markina-Xemein	0
Artzentales	1	Galdakao	0	Ugao-Miraballes	0	Maruri-Jatabe	0
Atxondo	0	Galdames	1	Urduliz	0	Mendata	0
Aulesti	0	Gamiz-Fika	0	Usansolo	0	Mendexa	0
Bakio	0	Garai	0	Zaldibar	0	Meñaka	0
Balmaseda	0	Gatika	0	Zalla	1	Morga	0
Barakaldo	1	Gautegiz Arteaga	0	Zamudio	0	Mundaka	0
Barrika	0	Gernika-Lumo	1	Zaratamo	0	Mungia	0
Basauri	1	Getxo	7	Zeanuri	0	Munitibar	0
		Gizaburuaga	0	Zeberio	0	Murueta	0
Bedia	0	Gordexola	1	Zierbena	0	Muskiz	0
Berango	1	Gorliz	0	Ziortza-Bolibar	0	Muxika	0
Bermeo	0	Güeñes	3			Nabarniz	0
Berriatua	0	Ibarrangelu	0			Ondarroa	0
Berriz	0	Igorre	0			Orduña	0
Bilbao	46	Ispaster	0			Orozko	0
Busturia	0	Iurreta	0			Ortuella	0
Derio	0	Izurtza	0				

Taula: Erregistratutako gizarte-zerbitzuen eta -zentroen jatorria.

3. JARDUERAK 2025

Esperientzia kulturalak

2025eko maiatzetik abendura arte, esperientzia kultural hauek burutu dira programaren bidez:

Datu orokorrak:

95 zerbitzu/zentro erregistratuak, 54 gizarte-erakundetakoak.

26 programatzaile, proiektuari atxikiak.

Programaren hasieratik **145** erreserba egin dira 2025eko abendura arte programatutako jardueretarako. Horietan, gizarte-bazterketa egoeran dauden **1.854** pertsonak parte hartu dute guztira.

2025eko erreserben banaketa lurraldearen arabera:

Gertu Kulturaren eskainitako jardueretan parte hartu duten 1.854 pertsonetatik 1.677 pertsonak erabaki dute jarduera horiek Bilbon egitea. Gainerako 177 pertsonak, aldiz, gainerako udalerrietan egin dituzte jarduerak.

2025eko erreserben banaketa jarduera-motaren arabera:

- Museoak (bisita gidatuak, lantegiak, etab.): % 30,5
- Arte eszenikoak (kontzertuak, entseguak, etab.): % 10,6
- Musika, kontzertuak eta BBK babesletzak: % 59,0

2025eko erreserben banaketa hilabetearen arabera:

- Apirila: 9 erreserba, 141 pertsona
- Maiatza: 4 erreserba, 34 pertsona
- Ekaina: 9 erreserba, 136 pertsona
- Uztaila: 16 erreserba, 166 pertsona
- Abuztua: 10 erreserba, 84 pertsona
- Iraila: 16 erreserba, 162 pertsona
- Urria: 20 erreserba, 282 pertsona
- Azaroa: 29 erreserba, 449 pertsona
- Abendua: 32 erreserba, 400 pertsona

2025eko erreserben banaketa kolektibo-motaren arabera:

- Adikzioak dituzten pertsonak: % 9,3
- Alzheimerra eta/edo beste dementzia batzuk dituzten pertsonak: % 0,4
- Entzumenaren Dibertsitate funtzionala duten pertsonak: % 0,0
- Dibertsitate funtzional fisikoa duten pertsonak: % 1,5
- Dibertsitate funtzional intelektuala duten pertsonak: % 30,7
- Gizarte-bazterketako arriskuan edo kalteberatasun-egoeran dauden emakumeak: % 6,5
- Gizarte-bazterketako arriskuan edo kalteberatasun-egoeran dauden adineko pertsonak: % 11,7
- Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak: % 0,0
- Pertsona migratzaileak eta/edo errefuxiatuak: % 9,3
- Askatasunaz gabetutako pertsonak: % 1,5
- Pobrezia-egoeran dauden pertsonak: % 3,7
- Osasun mentaleko kolektiboko pertsonak: % 6,2
- Etxerik gabeko pertsonak: % 6,4
- Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak: % 2,0

Formakuntzak eta topaketak

Urtean zehar, hiru formakuntza-ildo osagarri garatu genituen, erakundeen barruan kulturak eta arteak eraldaketa sozialerako dituzten aukerak indartzen, kulturara sartzeko oztopoak detektatzen eta aukera berriak sortzen laguntzeko:

- **Errazbide:** Irisgarritasunaren eta aniztasunaren inguruko formakuntza, programan parte hartzen duten gizarte-erakundeekin lankidetzan, kulturaren sektoreko profesionaleri zuzenduta, sareko profesionaleri espazio kultural irisgarriagoak eta inklusiboagoak lortzen laguntzeko.
- **Artez Hezi:** Gizarte-arloko hezitzaile/profesionaleri eta erabiltzaileei eta kultura-arloko profesionaleri zuzendutako lantegi artistikoak.
- **Elkarguneak:** Gizartearen eta kulturaren sektoreko eragileen arteko partaidetzazko lantegia, proposamenak partekatzeko eta aniztasunak errespetatzen dituen gizarte bidezkoago baterantz aurrera egiteko.

2025ean egindako formakuntzak eta topaketak:

Errazbide programaren baitan, bi formakuntza burutu dira 2025ean. Lehena, **“Irisgarritasun unibertsala eta aniztasunarekiko arreta kultura-inguruneetan. Sarrera bat”**, maiatzaren 30ean egin zen online formatuan, Gertu Kulturaren eskutik, eta sareko bitartekari kulturei zuzenduta. 43 pertsona konektatu ziren.



Online formakuntzan erabilitako diapositibak.

Bigarren formakuntza, **“Irisgarritasun kognitiboa gizarteratzeko tresna gisa”**, ekainaren 17an egin zen, **FEVAS Plena Inclusión Euskadirekin** lankidetzan, Bilboko Itsasmuseumen. Kulturako profesionaleri zuzenduta egon zen, desgaitasun intelektuala duten pertsonen oztopoak edo kulturarako sarbidearen garapena hobeto ezagutzeko, bai eta irisgarritasun kognitiboaren garrantzia hobeto ezagutzeko ere.



Irudia: Errazbide formakuntza, FEVAS Plena Inclusión Euskadirekin lankidetzan.

Kultura-arloko 28 parte-hartzaile izan ziren formakuntzan:

- Arrantzaleen Museoa, Arriaga Antzokia, Euskal Herria Museoa, Euskararen Etxea, Arkeologia Museoa, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Rekalde Aretoa, Itsasmuseum, Orduña Hiria Museoa, Ortzadar Elkarte, Txakolin Museoa.

Irailaren 26an gizartearen eta kulturaren sektoreen arteko lehen topaketa antolatu genuen: „**Elkarguneak #1: Oztoporik gabeko kultura**” Euskararen Etxean, Bilbon. Lehen topaketa horren helburua izan zen kulturaren eta gizartearen sektoreetako profesionalen eta gizarte-erakundeetako erabiltzaileen arteko elkarrizketarako gune bat sortzea. Elkar ezagutzea, elkarri entzutea eta kulturak gizartea eraldatzeko ematen dituen aukerak partekatzea, gizarte-aniztasuna ezagutu eta aitortzeko.

Topaketan zehar hainbat dinamika planteatu ziren kulturara sartzeko oztopoak eta horiek ezabatzeko aukerak identifikatzeko, kultura inklusiboago eta eraldatzaileago baterantz aurrera egiteko.



Lehen topaketaren irudiak Euskararen Etxean.

Gizartearen eta kulturaren sektoreko 48 parte-hartzaile izan ziren lantegian:

- ADSIS Fundazioa, Apnabi Autismo Bizkaia, Arkeologia Museoa, Arriaga Antzokia, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Gurutze Gorria Bizkaia, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Elkarbanatuz Elkarte, Euskal Herria Museoa, Euskadiko Orkestra, Euskararen Etxea, Gizakia Fundazioa, Gorabide, Norai Elkarte, Orduña Hiria Museoa, Rekalde Aretoa, Zubietxe Elkarte.

Artez Hezi formakuntza-ildoaren baitan, urriaren 24an, Sonia Gómezek programako lehenengo lantegia eman zuen: **“CalidoscòpicaLab. Gorputza eta osasun mentala”**, osasun mental kronikoarekin edo aldi baterakoarekin bizi diren profesional eta erabiltzaileei zuzendua, Ibaiondoko Udal Zentroan, Yhon Jauregian (La Bolsa), Bilbon.

Saio hau Bilboko Udalak antolatutako BAD Bilbao - Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdian (sareko programatzaile kulturala) jasotzen da, ikuskizunaren ikerketa- eta muntaia-prozesuan erabilitako ariketa eszenikoak partekatzeko eta arteak egunerokoan nola lagun diezagukeen egiaztatzeko helburuarekin.



Irudiak: Artez Hezi formakuntza, BAD Bilbaorekin eta Sonia Gómez dantzari eta koreografoarekin lankidetzan.

Formakuntzan 28 parte-hartzaile izan ziren, Argia Fundazioa erakundekoak.

Gertu Kultura Bizkaia inaugurazioa

2024ko azaroan, Gertu Kultura Bizkaia aurkeztu zen BBK Salan, 2025eko maiatzean plataforma abian jarriko zuen lehen sare kultural eta soziala osatzeko. Aurkezpenean parte hartu zuten Nora Sarasolak (BBK Banku Fundazioa), Braulio Gómezek (Deustuko Unibertsitatea), Marta Fontek (Gertu Kultura), Amaia Salaverriak (Gertu Kultura) eta Mikel Cañadak (Euskadiko Orkestra). Gertu Kultura Bizkaiaaren aurkezpenean kultura- eta gizarte-arloko 70 pertsona bertaratu ziren.



Irudiak: Gertu Kultura Bizkaiaaren aurkezpenaren irudiak, BBK Aretoa.

Maiatzaren 12an, Gertu Kultura Bizkaia inauguratu zen Bilboko BBK Salan, hauen babesarekin: BBK Banku Fundazioa —'2024-2030 Kultura Inklusiboaren aldeko Estrategia'-ren baitan—, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila eta Gizarte Ekintza Saila, eta Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza Saila.

Topaketa honen helburua Gertu Kultura aurkeztea izan zen, sareko ordezkariekin, programatzaile kulturekin eta gizarte-erakundeekin batera. Gainera, hainbat gonbidaturen eskutik, zenbait gai izan genituen hizpide, besteak beste, kulturaren balioa edo kulturarako sarbidea eta parte-hartzea bermatzeko beharrak.

Jardunaldiaren programa:

Jardunaldian kulturaren eta gizartearen arloetako hainbat pertsona ezagunek eta adituk parte hartu zuten. Programan Koldo Bilbao BBK Gizarte Ekintzako Kultura arduradunak, Leixuri Arrizabalaga Arruza Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, Amaia Antxustegi Ziarda Gizarte Ekintzako foru diputatuak, Gonzalo Olabarria Villota Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantzako zinegotziak eta Marta Font Gertu Kulturako zuzendariak hartu zuten parte.



Irudia: Gertu Kultura Bizkaia-aren inaugurazioko ongi-etorri instituzionala.

Gertu Kulturako zuzendari Marta Fontek eta Gertu Kultura Bizkaiko bitartekaritzako arduradun Mirari Garcíaek aurkeztu zuten programa, eta 2025erako Gertu Kultura Bizkaia-aren programazioa xehatu zuten.



Irudia: sare kultural eta sozialaren programaren aurkezpena eta hedapena.

Azkenik, “Oztoporik gabeko kultura” elkarrizketa-mahaia egin zen, Eztizen Esumamaga Bizkaiko Foru Aldundiko Rekalde Aretoko Hezkuntza eta Publikoen arduradunak moderatua. Parte-hartzaileak hauek izan ziren: Lucía Soria, FEVAS Plena Inclusión Euskadiko komunikazio eta irisgarritasun kognitiboko teknikaria;

Borja Pujol, Bilbao Orkestra Sinfonikoko zuzendari teknikoa; Idoia Pérez de Mendiola, Bizkaiko Caritaseko Gizarte Ekintzaren koordinatzailea; Iratxe Momoitio, Gernikako Bakearen Museoko zuzendaria; eta Sonia Camara, Arrigorriagako Udaleko dinamizatzaile soziokulturala eta Arrigorriagako Clownsena Nazioarteko Jaialdiko zuzendaria. Pertsona guztien bizitza kulturala normalizatzen saiatzen diren programatzaile kulturek eta gizarte-erakundeek aurre egin beharreko egoerari buruzko beren ikuspegi eta esperientziak partekatu zituzten.



Irudia: “Oztoporik gabeko kultura” mahai-ingurua.

Azkenik, jardunaldiari amaiera emateko “Haizea” pieza aurkeztu zen, Rakel Rodríguez Ruiz (Arymux) diziplina anitzeko artistarena, Arymux Konpainia inklusibo eta irigarriaren zuzendaria eta bere marka pertsonal bihurtutako Zeinudantza diziplina artistikoaren sortzailea.

Guztira 150 pertsona bertaratu ziren, toki- eta estatu-mailako hainbat arlotakoak (kultura, gizartea, arteak, osasuna, erakunde pribatu eta publikoak).

Inauguraziorako komunikazio-kanpaina:

Inaugurazioarekin batera, komunikazio-kanpaina espezifiko bat garatu zen, hiru fasetan egituratua: inaugurazioaren aurretik, inaugurazioan zehar, eta inaugurazioaren ondoren. Kanpaina hau BBK Banku Fundazioko komunikazio-taldeekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin (Gizarte Ekintza Saila eta Euskara, Kultura eta Kirol Saila) eta Bilboko Udalarekin lankidetzan estuan egin zen. Zabalkundea Gertu Kulturaren kanalen bidez egin zen (buletinak, sare sozialak, bideoak), eta hedabideetara prentsa-oharrak bidalita.

- **Komunikazio-kanpaina inaugurazioaren aurretik**

Gertu Kultura Bizkaia programa sortu berria denez lurraldean, inaugurazioaren aurreko hilabeteetan lan handia egin zen datu-base bat eratzen, proiektuaren beharrei erantzungo ziena: programatzailerak kulturalak eta funtsezko gizarte-erakundeak erakartzea, inauguraziora bertaratuta programari atxikitzeko.

Datu-base hori funtsezkoa izan zen inauguraziorako gonbidapena zabaltzeko, eta Bizkaiko 220 kontaktu estrategiko baino gehiagori bidali zitzaion.

- Mailchimp plataformaren bidez, inauguraziorako gonbidapena bidaltzea** arestian aipatutako datu-baseko pertsona guztiei, bai gizarte-sektorekoei, bai kultura-sektorekoei. Gonbidapenak % 45eko irekiera-tasa nabarmena lortu zuen, hau da, merkatuan batez besteko ontzat jotzen den % 20tik gorakoa.

Irudia: inauguraziorako gonbidapena Mailchimp bidez.



- Gertu Kulturaren inaugurazioa sare sozialetan zabaltzeko estrategia.** Inaugurazioaren aurreko hilabeteetan, bere zabalkundearen planifikazio-lana egin zen sare sozialetan: plantillak prestatzea, BBK Banku Fundazioarekin koordinatzea, eta sare sozialen bidez Gertu Kultura Bizkaia-aren sarearekin bat egiteko dagoeneko egindako kontaktuak finkatzea.

- c. Komunikabideei helaraztea:** Prentsa-ohar bat idatzi zen, Gertu Kultura Bizkaira iritsi zela jakinarazteko, ondoko hauekin lankidetzan estuan: BBK Banku Fundazioa eta proiektua babesten duten erakundeak (Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala). Lankidetzan hori gauzatzeko, erakunde horietako ordezkarien hitz azpimarragarrien prentsa-oharra sartu zen. Gainera, argazkiak eta gainerako materialak goiz bidali zirenez, BBK Banku Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak inaugurazioaren berri eman zuten.

Ondorioz, programaren aurkezpenak Bizkaian izan zuen estaldura mediatikoa oso ugaria izan zen. Gainera, dozena erdi kazetari baino gehiago bertaratu ahal izan ziren inauguraziora, ekitaldiaren hasieran prentsaurreko bat eskaini zenez gero, BBK Banku Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak (Gizarte Ekintza Saila eta Euskara, Kultura eta Kirol Saila) eta Bilboko Udalak programarekiko babesa eta lotura publikoki erakusteko. Prentsa-oharra Gertu Kulturaren Bizkaiko hedabideen datu-basera bidali zen eta **Gertu Kulturaren webgunera** igo zen.

Irudia Gertu Kulturaren webgunean: Bizkaia prentsa-aretoa.



Ahalegin horren ondorioz, Euskal Herriko hainbat hedabidetan estaldura mediatiko handia lortu zen. **El Correo**, **Bizkaie.biz**, **Estrategia**, **Europa Press**, **Tele 7**, **Cadena SER**, **Euskadi Irratia - Kultur Leihoa** eta **Radio Nervión** hedabideek zabaldu zuten albistea, eta nabarmendu zuten Bizkaiko espazio kulturek edukiera eta prezio sinbolikoak eskainiko dizkietela kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen plataforma berri honen bitartez. **Teleberrik** ere eman zuen albistea bai ETB2n bai ETB1en.

Hedabide guztiek nabarmendu zuten 22 programatzaile kulturalekin eta 33 gizarte-erakunderekin abian jarritako sarearen sorrera, BBK Banku Fundazioaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren babes instituzionala, plataformaren funtzionamendua eta kolektibo kalteberei zuzendutako programaren izaera inklusiboa. Hedabideen estaldura zabala eta positiboa izan zen, eta ekimena ezagutzera ematen lagundu zuen.

q

EL CORREO

22 recintos culturales de Bizkaia ofrecerán el 2% de su aforo a precios simbólicos para colectivos vulnerables

Nace Gertu Kultura, iniciativa público-privada para fomentar la inclusión y «eliminar barreras» sociales



Presentación de Gertu Kultura, este lunes en la Sala BBK, Ayuntamiento de Bilbao



Irudiak hedabideetan: Gertu Kultura Bizkaiaren inaugurazioa.

- **Komunikazio-kanpaina inaugurazioan zehar**

Sare Sozialak: Inaugurazioan, Gertu Kulturaren sare sozialetan (X, Instagram eta Facebook) ekitaldiaren argazkiak partekatu ziren, eta parte hartu zuten erakundeak eta instituzioak aipatu ziren. Gainera, interakzioa sortu zen inaugurazioan parte hartu eta bere berri eman zuten pertsonekin, Gertu Kultura eremu digitalean ere hurbileko programa dela erakutsita. Bestetik, ekitaldiaren laburpen-bideo bat egin zen, eta post bat hedatu zen parte-hartzaileekin.




Irudiak sare sozialetan: Gertu Kultura Bizkaiaren inaugurazioa.

Instagramen denbora errealean zabaldu zen inaugurazio-ekitaldia. Nabarmentzekoa da, gainera, sare sozialetako hedapen horretan, programaren parte diren gizarte-erakundeek eta programatzaile kulturelek agertutako jarrera positiboa eta laguntzazkoa. Izan ere, Instagramen, adibidez, argitalpen hau urteko partekatuen artean izan da alde handiarekin.

- **Komunikazio-kanpaina inaugurazioaren ondoren**

Inaugurazioaren ondoren, berri hau Gertu Kulturaren blogean argitaratu zen, eta gizarte-erakunde eta programatzaile kulturekin interakzioan jarraitu zen; hauek Gertu Kulturaren sartu izana argitaratzen joan ziren beren kanaletan. Era berean, gizarte-erakunde askok beren sare sozialetan eta webguneetan argitaratu zuten programarekiko atxikimendua. Lankidetzaz hori funtsezkoa izan zen inaugurazio-kanpainen helburua lortzeko: programarekin bat datozen erakunde bultzada aprobetxatzea sare zabalago batera iristeko kanal gisa, beren ezaugarriengatik programako parte-hartzaile potentzial bihurtzen diren pertsonak barnean hartuko dituenak.



Irudia sare sozialetan: Gertu Kultura Bizkaia-aren inaugurazioa.

Programa espezifikoak eta partaidetzazkoak

Gertu Kultura egunero eboluzionatzen eta eraldatzen doa, pertsonen, gizarte- eta kultura-arloko erakundeen, eta eragile publiko eta pribatuen sare organiko baten bidez. Denok egiten dugu aurrera helburu komun baterantz: kulturaren bidez gizarte bidezkoagoak, jasangarriagoak eta berdinzaleagoak eraikitzea.

Esparru horretan sortzen dira zeharkako egoera jakin bati bi urtean behin eskainitako programa espezifikoak. **2025ean, nahi ez den bakardadearen egoerarekin hasi ginen lanean, kalteberatasunaren eta gizarte-bazterketaren arrisku-faktoretzat hartuta**, eta kulturaren bidez egoera horri aurre egiteko moduak aztertzen.

Museoko atek irekitzea nahikoa ez denean, eta kulturaz gozatzeko, beste hartu-eman modu batzuk aktibatu ditzakegu.



Hautatu gabeko bakardadearen aurkako kanpainaren logotipoaren irudia.

Museoak eta Alzheimerra programa:

2025eko azaroan hasi zen Museoak eta Alzheimerra programa, artea eta ondare kulturala Alzheimer gaixotasunaren lehen graduetan dauden pertsonen eta haien zaintzaileei eta senideei hurbiltzea helburu duen proiektua eta ikerketa. Proiektu hau Gertu Kulturak eta EHUk elkarlanean garatzen dute, parte hartzen duten museoekin batera.

Museoetako hezitzaileek Alzheimerra edo beste dementzia batzuk dituzten pertsonen tratuari eta arretari buruzko formakuntza jasoko dute. Rol-playinga bezalako dinamikak barne hartzen dituzten lan-saio teoriko/praktikoen bidez, museo bakoitzak bere espazioa eta esperientzia Alzheimerren fase arinean edo moderatuan dauden pertsonen egokitzen lan egingo du.

2025-2026 edizioko museo parte-hartzaileak: Txakolin Museoa - Txakolingunea, Arte Ederren Bilboko Museoa, Orduña Hiria Museoa, Euskararen Etxea, Gernikako Bakearen Museoa, Arrantzaleen Museoa.



Museoak eta Alzheimerra programako lehen saioaren irudia.

Aurkezpenak eskualdetan:

Urtean zehar, programa ezagutarazteko asmoz, hainbat aurkezpen antolatzen ditugu Bizkaian zehar.

Eskualdeko lehen aurkezpena Enkarterrietan egin zen, Balmasedako La Encartada Fabrika-Museoan. Programa, lan-ildoak eta bide-orria azaldu ziren, baita irisgarritasunaren kulturalari buruzko lehen gako batzuk eskaini ere. Kultura- eta gizarte-arloko 10 pertsona eta udaletako teknikariak bertaratu ziren.

4. KOLABORAZIOAK

2025ean, Gertu Kulturak **hautatu gabeko bakardadeari aurre egiteko** ekimenekin bat egin du BizkaiaGararekin lankidetzan —herritarren ekintza, boluntariora eta lan komunitariorako gunearekin— kultura ongizaterako, inklusiorako eta kohesiorako tresna dela sinetsita.

BizkaiaGara Eguna herritarrei dei egiteko ekimen bat izan zen, lankidetzak kolektiboaren bidez Bizkaiko lurraldea hobetzea helburu zuena, inguruko beharrei erantzunez. Egun horretan, boluntarioek eta nahi ez den bakardadean dauden pertsonak antzerki, zinema edo musikako emanaldi batez gozatu zuten elkarrekin. Gainera, BizkaiaGara Egunaren 2025eko **bideoan** eta haren **webgunean** parte hartu genuen.



Irudia: BizkaiaGara Eguna 2025en logotipoa.

5. LAN-SAREAK

2025ean, Kultur Kabiak, Gertu Kultura bultzatzen duen erakundeak, lankidetzak bat hasi zuen, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen Kultura Eskubideak Aktibatzeke Estatuko Sarean parte hartuta. Beste 5 erakunderekin batera:

Asociación Hazlo Accesible (Madril), sare hau bultzatu eta koordinatzen duen elkarteak, **Kultur Kabia**, **Apropa Cultura** (Katalunia), **Asociación Cultura Inclusiva Balears** (Balear Uharteak), **Asociación Adonar** (Valentziako Erkidegoa) eta BenCuriosa kooperatibaren **Implementa Cultura** (Galizia) programa. Daniel y Nina Carasso Fundazioaren laguntzari esker.

6. FOROETAKO PARTE-HARTZEA

2025ean, programa ezagutzera emateko hainbat aurkezpen egin dira:

- 2024/11/25. Gertu Kulturaren aurkezpena, BBK Salan, Bilbo
- 2025/01/09. Aurkezpena - Bilboko Udaleko teknikariak
- 2025/01/15. Aurkezpena - Euskal Antzokien Sarea
- 2025/01/21. Aurkezpena - FEVAS Plena Inclusión Euskadi
- 2025/01/24. Irisgarritasuna formakuntza - Gernikako Bakearen Museoa
- 2025/02/25. Bilera - Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila
- 2025/03/14. Bilera - Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila
- 2025/03/19. Aurkezpena - EAPN Euskadi
- 2025/05/12. Gertu Kultura Bizkaia-aren inaugurazioa, BBK Sala
- 2025/06/18. Aurkezpena - SSI taldea
- 2025/06/19. Aurkezpena - BizkaiaGara
- 2025/07/11. Parte-hartzea - Bilbao BBK Live
- 2025/05/20. Parte-hartzea - BizkaiaGara Eguna
- 2025/10/31. Bilera - Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Kohesioa Saila
- 2025/11/04. Aurkezpena - Enkarterriak, La Encartada Fabrika-Museoa
- 2025/11/17. Aurkezpena - Herritar aktiboa, boluntarioriaz harago
- 2025/11/18. Bilera - BizkaiaGara Eguna, BFA eta BBK Banku Fundazioa

7. KOMUNIKAZIOA ETA PRENTSA

2025ean, Gertu Kulturaren komunikazioak **hiru ardatz estrategiko** izan zituen:

- Gertu Kultura Bizkaia sarea ezagutzera ematea
- Gertu Kultura lurraldearekiko posizionatzea
- Urteko ibilbide-orriaren berri ematea

2025eko maiatzean Gertu Kultura Bizkaia sortu ondoren, urte horretarako komunikazio-estrategiak hauek izan zituen ardatz: sarearen lana ikusaraztea, programatzaile kulturalak eta jardueren eskaintza nabarmentzea, programaziotik harago sareak duen zeregina erakustea (formakuntza eta baliabideen bultzatzaile gisa) eta gizartearen eta kulturaren sektoreetarako duen erabilgarritasuna azpimarratzea.

Sortu ziren eduki guztiak ele bitan izan ziren, euskararen erabilera lehenetsita eta beti hizkuntza inklusibo baten erabilera bermatuta.

Ardatz estrategiko horiek lagungarriak izan ziren proiektua ezagutzera ematen hasi aurretik ezarritako helburuetako batzuk betetzeko.

- Proiektua kontakizun moduan ezagutaraztea. Gertu Kultura zergatik den beharrezkoa erakustea, gaur egun kulturarako sarbidean dauden oztopoak eraisteko.
- Gizarte-erakundeetako pertsoneri ekimenarekin bat egiteko eskatzea.
- Programatzaile kulturalari dei egitea Gertu Kultura sareko kide izan daitezen.

Edukiak

Lehen aipatu dugun bezala, Gertu Kulturaren komunikazioa hiru eduki nagusiren hedapenak markatu zuen: Gertu Kulturaren **urteko ibilbide-orria** eta posizionamendua sarearen existentziaren beharrekiko; Gertu Kultura osatzen duten **programatzaile kulturalak** eta **Gertu Kulturak bultzatutako ekimenak** (Elkarguneak, Artez Hezi edo Errazbide), bai eta BizkaiaGara bezalako erakunde estrategikoekiko lankidetzaren ere, Gertu Kulturarekin lan-ildoak partekatzen dituztenak (nahi ez den bakardadea, adibidez).

Buletinak

2025ean zehar posta elektronikoa sendotzen joan zen Gertu Kultura Bizkaiarentzako komunikazio-kanal nagusi gisa. Inaugurazio-ekitaldirako gonbidapenak arrakasta handia izan zuen, eta horrek interes handia sortu zuen. Hori dela eta, datu-basea nabarmen zabaldu da, eta kulturaren sektoreko zein gizartearen sektoreko eragile ugari sartu dira ondorengo hilabeteetan.

Buletin espezifikoareko gizarte-erakundeentzat:

Gizarte-erakundeentzako buletin espezifiko bat ezarri da, proiektuan parte hartzen duten programatzaile kulturaleri eta izena eman dezaketen hurrengo ekitaldiei buruzko informazioa emateko. Buletin honen helburua da gizarte-erakundeen parte-hartzea eta izen-ematea dinamizatzea, eta, aldi berean, Gertu Kulturaren egungo eskaintza zabaltzea. Inpaktua maximizatzeko, hurbileko hizkuntza erabiltzen da, argazki erakargarriak sartzen dira eta buletin laburrak lantzen dira.

Bestalde, buletin bat sortu da pertsonak Gertu Kultura eta hura osatzen duten proiektuak ezagutu ditzaten. Gertu Kulturak lantzen dituen gaien inguruko eduki baliotsua eman nahi duen buletina da: **irisgarritasunari buruzko gomendioak, kulturari eta inklusioari lotutako proiektu interesgarriak, argitalpenak...**

Gertu Kultura Bizkaiaren mailing sistema abian jartzean, newsletterra hainbat hizkuntzatan eta segmentu espezifikotan sortzen lan egin da, eta datu-basean sartzen diren pertsona guztiak programak barnean hartutako kolektibo-moten arabera sailkatzen dira. Gainera, proiektuaren parte diren gizarte-erakundeak etengabe hazten ari direnez, gizarte-erakunde berri batek proiektuarekin bat egiten duenean, buletina bidaltzen zaie gainerako gizarte-erakundeei.

Guztira, urtariletik abendura **47 buletin** bidali dira Gertu Kulturatik, hau da, **2.641 mezu elektroniko**. Mezu elektroniko horiek bi publiko nagusi izan dituzte: batetik, Gertu Kultura sareko gizarte-erakundeak eta, bestetik, kulturaren arloko sektorea, Gertu Kultura sareko programatzaile kulturalak eta proiektuan interesa duten pertsona guztiak biltzen dituen.

Buletin horiek sortzen duten interes maila oso handia da, eta newsletterren errendimendu estandarren oso gaintetik dago; izan ere, Europako irekiera-tasen

estandarra % 22koa bada, Gertu Kulturaren bidalketetan batez bestekoa % 46koa da.

Gizarte-erakundeei zuzendutako mezu elektronikoaren adibidea:

The image shows two digital newsletters from Gertu Kulturaren Bizkaia. The left newsletter has a red header with the logo and the text 'Inklusiorako atea'. The main content is titled 'MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK' and includes two activity cards: 'LUPI BELARRA argazki erakusketa' and 'Eulalia Abaitua, Kameratik orratzera'. A red button at the bottom says 'Ikusi hemen programazioa'. The right newsletter has a grey header with the title 'MUSIKA' and a red section for a music event 'CONFETI, El regreso'. It includes contact information for Bizkaia and social media icons. At the bottom, it lists sponsors: Gertu Kulturaren Bizkaia, bbke, Bizkaia, and Bilbao.

Kulturaren sektoreari zuzendutako mezu elektronikoko orokorraren adibidea:

gertu
kultura Inklusorako atea

Recientemente se ha presentado el **Plan de Derechos Culturales** del Ministerio de Cultura. En este se aborda un diagnóstico sobre esta temática y establece la necesidad de construir y establecer una visión de la cultura más dinámica, diversa y social, conectada con las necesidades y retos sociales, que incluya a todas las personas.

En el análisis que desde **Gertu Kultura** estamos realizando de este marco, nos planteamos cómo hacer efectivos los derechos culturales a escala local, territorial y municipal, potenciando la vida cultural comunitaria y qué contextos serán indispensables para ello, el papel de las políticas culturales y sociales, será clave para ello.

Arrancamos temporada desde estas reflexiones que compartiremos en foros y debates, y en el desarrollo de proyectos que quieren contribuir al cambio, hacia una transformación social inclusiva.

Próximas sesiones y propuestas de formación
Con la colaboración de organizaciones, entidades sociales y agentes culturales abrimos espacios de sensibilización y formación. Próximamente:

Elkarguneak #1: Cultura sin barreras



Espacio de diálogo entre el sector social y cultural para dar respuesta a necesidades sociales, esta vez en Euskararen Etxea, en Bilbao.

Fecha: 26/09/2025, 10:00

[Más información sobre Elkarguneak](#)

Inscríbete en el Elkarguneak #1

bizkaia@gertukultura.org
601 92 70 74
gertukultura.org

gertu
kultura
inklusorako atea



Kultura Sentitu
Herriak gurekin
barkatzen diren gertu

✕ @ ✉

Bizkaiaek / Con el apoyo de

gertu inklusorako  **kultura** atea **bbke** **Bizkaia** **Bilbao**

Sare Sozialak

Jarraian, Gertu Kulturaren profilen emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu Instagram, Facebook, LinkedIn eta X (lehen, Twitter) sare sozialetan. Sare sozialetan partekatutako eduki guztiak elebidunak izan dira, euskararen erabilerari lehentasuna emanda eta hizkuntza inklusiboa erabilia.

Sare sozialetako jarduera sendotu egin da urtean zehar, eta une bakoitzean partekatutako edukiek markatutako iraunkortasuna mantendu da. Intentsitate handieneko uneak maitzean izan ziren, programa BBK Aretoan aurkeztearekin batera, eta irailean, Euskararen Etxean ospatutako Elkargunean.

Azpimarragarria da sareko programatzaile kultural eta antzeko erakundeekiko (BizkaiaGara, adibidez) lankidetzak. Sare sozialen estrategia bat etorri da programaren komunikazio-planaren helburuekin:

- a. Programatzaile kulturalen egungo sarea eta eskaintzen diren espazio eta ekitaldi kulturalen aniztasuna erakustea, bai lurraldean, bai diziplina artistikoan.
- b. Kulturarako sarbide inklusiboa nabarmentzea.
- c. Laguntzaileen konpromiso sozial eta kulturala nabarmentzea.
- d. Gizartearen eta kulturaren arteko elkarriketa sustatzea.
- e. Gertu Kulturak programa paraleloak bultzatzen dituela erakustea, besteak beste, Elkarguneak edo Errazbide formakuntzak.

Instagram:



Gertu Kulturak % 67 baino gehiago handitu ditu jarraitzaileak, eta horrek erakusten du webgune honen erabiltzaileengan sortutako interes-maila eta programak sare sozial honetan duen hazkunde potentziala. Guztira 43 argitalpen egin dira 2025ean, eta guztira 23.650 bistaratze izan dira; horiekin 9.000 kontu lortu dira.

Sareko beste erakunde edo kolaboratzaile batzuekin batera egindako argitalpenek hedadura handia izan dute, bai eta eragin handia ere. Gainera, lehen aipatu bezala, inaugurazio-jardunaldia, hedabideetan eta beste gizarte-erakunde batzuetan izandako oihartzunarekin, trafiko eta interakzio handieneko uneetako bat izan da Instagramen profilean, eta jarraitzaile berri gehien erakarri dituena.

Era berean, lortutako irismena kontuan hartuta, edukirik onenak honako hauek izan dira: BBK Aretoan Gertu Kultura Bizkaiaren inaugurazioko talde-argazkiaren argitalpena, Arriaga Antzokia Gertu Kulturaren programatzaile gisa aurkeztea, lankidetzako post batekin, eta Itsasmuseumean egindako Errazbide formakuntzari buruzko reela. 2025ean, jarraitzaileen % 67ko hazkundeak eta 43 argitalpenen arrakastak erakusten dute Gertu Kulturaren eduki estrategiaren eraginkortasuna.

Parte-hartze handiak eta irismenak, batez ere baterako argitalpenetan eta funtsezko ekitaldietan, adibidez, inaugurazioan (talde-argazkia, Arriaga Antzokiarekiko lankidetzak eta Errazbideren reela nabarmenduta), programak kulturaren sektorean inpaktua eta nabaritasuna sortzeko duen ahalmena berresten dute.

X:



X-en jarraitzaileen kopurua 94koa da gaur egun, baina egia da sare honen hazkundera oso motela dela, premium erabiltzailerik ez izateak zaildu egiten baitu argitalpenek irismena izatea eta jarraitzaile berriak lortzea. Instagramen bezala, sare sozial honetako edukirik zabalduena BBK Aretoan izandako inaugurazio-egunarekin lotutakoa izan zen. Arrakasta horren arrazoia da ekitaldi horretan argitalpen-jarduera handiagoa izan zela, eta etengabeko estaldura izan zuela. Horrez gain, bertan parte hartu zuten erakundeek plataforma horren bidez aritu ziren interakzioan Gertu Kulturarekin, ekitaldien berri emateko asko erabiltzen den plataforma dela kontuan hartuta. Nabarmentzekoa da sare honetan gizarte-erakundeek duten parte-hartzea, programaren alderdi guztiak hedatzen (formakuntza eta programazio kulturala).

Edukirik onena bistaratze-kopuruaren arabera:



Hedabideak

2025ean zehar Gertu Kultura Bizkaiaren estaldura mediatikoa bere inaugurazioaren aldian izan zen. Lehen aipatu bezala, programa babesten duten erakundeek (Aldundia eta Bilboko Udala) eta BBK Banku Fundazioaren arteko estrategia komuna ezinbestekoa izan zen Gertu Kultura Bizkaiaren inaugurazioak hedabideetan oihartzun handia lor zezan.

Zehazki, albisteak estaldura zabala izan zuen eskualdeko eta nazioko hedabideetan. Europa Presse (irismen nazionalako agentzia), Cadena SER Euskadi/Radio Bilbaok, Radio Nervi3n, Tele7, Estrategia Empresarial eta Bizkaie.biz hedabideek eman zuten albistearen berri, eta nabarmendu zuten programa soziokultural berri honek aukera

ematen diela kalteberatasun-egoeran dauden pertsonei kulturarako sarbidea izateko sare baten bitartez. Aurkeztu zenean, sareak 22 programatzaille kultural eta 33 gizarte-erakunde biltzen zituen. Hedabide guztiek azpimarratu zuten BBK Banku Fundazioak 2024-2030 Kultura Inklusiboaren aldeko Estrategiaren barruan bultzatutako ekimenak gutxienez % 2ko edukiera eskaintzen duela, prezio sinbolikoetan, erreferentziatzeko espazio kulturaletan, besteak beste, Arriaga Antzokian, Euskalduna Jauregian edo Euskadiko Orkestran.

Atari instituzionalek ere zabalkunde handia eman zioten abian jarri berri zen sare honi. Euskadi.eus/Kulturklikek (Eusko Jaurlaritzaren ataria) gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu zuen albistea, erakundeen ikusgarritasun handiena bermatuta. Bilboko Udalak (bilbao.eus) hainbat argitalpen erakutsi zituen bere webguneko ataletan. BBK Banku Fundazioak ere bere kanal ofizialak (bbk.eus eta BBK Aretoa) erabili zituen programaren sorreraren berri emateko, eta horrela osatu zuen estaldura mediatikoa zuzeneko informazio instituzionalarekin.

Gizarte-erakundeek ere aktiboki zabaldu zuten beren parte-hartzea. APNABI Autismo Bizkaiak programarekin bat egin izanaren berri eman zuen argitalpen batean, ASPACE Bizkaiak parte hartuko zuela iragarri zuen, ASPARBIK (Parkinson Bizkaia) ekimenaren parte dela jakinarazi zuen, eta FEVAS Plena Inclusión erakundeak irisgarritasun kognitiboari buruzko formakuntzetan izan zuen lankidetzeta nabarmendu zuen. Erakunde horiek, Cáritas Bizkaia, Gorabide eta Lantegi Batuak bezalako beste batzuekin batera, beren kanaletatik inklusio kulturalaren mezua indartu zuten, BBK-k 2024-2030 Kultura Inklusiboaren aldeko Estrategiaren barruan bultzatutako programaren eragin eta zilegitasun soziala areagotuta.

BBK impulsa Gertu Kultura Bizkaia para facilitar el acceso a la cultura a personas vulnerables

Una nueva plataforma online que conecta a programadores culturales y entidades sociales para garantizar el acceso inclusivo y accesible a la cultura



Nace Gertu Kultura en Bizkaia, con el fin de acercar la cultura a todos

La Fundación Bancaria BBK impulsa el nacimiento de Gertu Kultura, una red que facilita el acceso a la cultura a personas en situación vulnerable



La plataforma online ha entrado hoy en funcionamiento con 21 espacios culturales, que ya ofrecen el 2% de su aforo a un precio simbólico. El funcionamiento de Gertu Kultura es sencillo. A través de la plataforma gratuita www.gertukultura.org/bizkaia, ya disponible, las entidades sociales que trabajan con personas en cualquier tipo de **situación de vulnerabilidad** pueden reservar entradas para los colectivos a los que atienden.

Por su parte, los **21 programadores culturales públicos y privados** que se han sumado en esta primera, ofrecen sus actividades habituales a precios reducidos, así como eventos específicos, **prioridad de acceso, apoyo, formación artística**. El Teatro Arriaga, el Palacio Euskalduna o la propia Sala BBK están entre los muchos espacios ya implicados.



'Bizkaian Gertu Kultura', egoera zaugarrian dagozan pertsonen kulturarako sarbidea erraztea da helburua

Bizkaia! 2025-05-12 12:38 KULTUREA

Online plataformea gaur jarri da martxan 21 kultura-gunek osotutako lehen txandegaz.



Ezkerretik eskumara: M. Font, A. Anbustegi, L. Arrizabalaga, G. Olabarria eta K. Bilbao. Erretratu: © Asier Camacho. | Ikusi handiago | Argazki originala

Webguneko bisitak

Gertu Kulturaren webgunean, komunitatearentzat interesgarriak diren albisteak eta edukiak zabaltzeko eta lurraldean egin diren formakuntzen berri emateko baliatu da bloga, eta leku egokia izan da, era berean, sareko programa espezifikoaren eta erakunde espezifikoekiko lankidetzen albisteak zabaltzeko. Horrela, sareak Bizkaian sortzen dituen albisteak modu arin eta zuzenean garatzeko plataforma erabilgarria izan da.

Zehazki, **11 sarrera** argitaratu dira. Argitalpen nagusien artean daude sarea abian jarri izanaren berri ofiziala, gizarte- eta kultura-arloko sarearen lehen topaketa presentziala irailean Euskararen Etxean, Bilbon, eta irisgarritasunari eta aniztasunari buruz maiatzean eta ekainean egindako formakuntzak. Era berean, bi artikulu praktikoa nabarmentzen dira, maiz egiten diren galderekin, bai gizarte-erakundeei, bai

sustatzaile eta ekipamendu kulturaleri zuzenduak, bi kolektiboei informazio operatiboa emateko.

Blogak **programa espezifikoak** ere jasotzen ditu: "Museoak eta Alzheimerra 2025-2026", "CalidoscòpicaLab" Artez Hezi, BADEkin lankidetzan garatua, eta hautatu gabeko bakardadearen aurkako BizkaiaGara jardunaldiarekin izandako lankidetzeta. Gainera, testuinguruko edukia sartu da, besteak beste, nahi ez den bakardadeari buruzko Euskadiko barometroa (2024) eta espazio kultural etako arkitektura kognitiboa.

